



Zorion etxe hontako denoi oles egitera gatoz,
aterik ate ohitura zaharra aurten berritzeko asmoz.
Ez gaude oso aberats diruz, ezta ere oinetakoz,
baina eztarriz sano gabiltza eta kanta nahi dugu
gogoz.

Santa Ageda bezpera dugu, Euskal Herriko eguna,
etxe guztiak kantuz pozteko aukeratua eguna.
Ahoz ederra eta gainera esku artean makila
txorakeriaz datorkiguna kontuz ibil dadila.

Bat, bi eta hiru... eup!



**Oles, oles, lurra esna zaitetz! Oles, oles, lurra esna
zaitetz! (bis).**

Aharrausi egin du basoak zuhaitzek zabaldu besoak,
kantuan hasi dira birigarroak eta zozoak (bis).

Aharrausi egin du basoak zuhaitzek zabaldu besoak,
dantzari hasi dira azeriak eta otsoak (bis).

Aharrausi egin du basoak zuhaitzek zabaldu besoak,
berriro entzun dezan taupadaka mundu osoak (bis).